


Familien erantzunen laburpena

2020-2024ko plan estrategikoa iraungitzeaz egonik, maiatzean, Plan Estrategiko berrirako ekarpenak egiteko eskatu genizuen familiei. Jarraian, erantzun horien laburpena aurkituko duzue.

[Familien erantzunen laburpena](#)



Zubieta eta Aginagatik DBHra datozen ikasleen gurasoentzat bilera

Ikasle berri hauen gurasoekin, aurkezpen bilera bat egingo dugu **ekainaren 24an arratsaldeko 17:00etan Udarregi Ikastolako eraikinean (gorrian).**



2024/2025 ikasturterako zerbitzuetan izen-ematea

Goizeko zaintza

Egunero, ikasturte osoan, 8:00-9:00 orduetean Agerialdeko eraikinean zerbitzu hori eskaintzen da. Izen-ematea **ekainaren 28ra** bitarte egin daiteke [galdetegi hau](#) betez.

Arratsaldeko zaintza

Irailean zehar, klase orduak goizetik soilik direnean, 14:30-16:30 orduetean zaintza eskainiko da, gutxienezko ikasle kopurua osatzen bada. Zerbitzua behar izanez gero, bete mesedez [galdetegi hau](#) **ekainak 28rako.**

Jangela

Datorren ikasturteko jangelako zerbitzua antolatzeko, familien beharrak zeintzuk diren jakin behar dugu, hori dela eta, mesedez, [galdetegi hau](#) **ekainaren 28a** baino lehen betetzea eskatu nahi dizuegu.



Ikasle-agendak 2024/25 ikasturterako

Udarregi Ikastolak, lehenengo aldiz, 2024/25 ikasturterako ikasleentzat eskola-agenda argitaratu du. Euskara hutsean editatuta dago eta ikastolarako primeran etorriko zaie ikasleei! Salmenta prezioa **7 €koa** izango da eta eskuratu nahi izanez gero, [galdetegi hau](#) bete beharko da **datorren ostirala, ekainaren 28a, baino lehen**. Galdetegiari, ordainagiria atxiki beharko zaio eta ordainketa Rural Kutxako honako kontu honetan egingo da: ES31 3008 0259 1120 8479 6727. Kontzeptuan ikaslearen izen-abizenak jarri.



Xake-tailerra Sutegi liburutegian

Ekainaren 26an goizeko 11:30etik 13:00etara, Sutegi Liburutegian, **HASTAPEN tailerra**: Xakean ikasi edo/eta lehen pausoak eman nahi dituen edonorentzat.

Ekainaren 27an 11:30etik 13:00etara, Sutegi Liburutegian, **HOBEKUNTZA tailerra**: Xakean sakondu nahi duen edonorentzat.

Irakaslea: Breogán Estévez.

Izen-ematea: Liburutegian.

[Kartela](#)



AISIALDIRAKO eskaintza 2024-25

Ziromolan 2024-25 ikasturterako prestatu den [eskaintza](#) bidaltzen dugu: egonaldiak, formakuntzak, Aisiola, eta abar.

Egitasmoetan izena emateko [esteka honetan](#) topatuko duzun galdetegia bete behar duzue, eta horretarako **azken eguna ekainaren 28a** izango da.



Santixabeletako Kolore Festarako oharra

Aurtengo Umeen ekintzak antolatzen dituen guraso taldeak, **ekainaren 28an, Kolore Festa, frontoian** izango dela **16:00etan** adierazten dizue.

Eskerrik asko!



Usurbilgo Udala

Kilometroak 2024

Azpeitian, urriaren 6an, Kilometroak 2024 ospatzeko jaiaren antolakuntzari aurre egin ahal izateko gure Ikastolatik gutxienez 10 laguntzaileren eskaera egin dute. Izena emateko usurbil@ikastola.eus helbidera bidali mezua ekainaren 30a baino lehen.

Jakin ezazue, ardura hori goizez eta 4 orduko txandetan izango dela, beraz, ondoren eguna osoa gelditzen dela jaiaz goatzeko. Animatu!



HAUR-HEZKUNTZA

2-3 urteko familiei zuzendutako bilera deialdia

2024/25 ikasturtean zuen seme-alaba HH3 urteko gelan egongo da eta bertako familiei harrera eta egokitzapen-prozesua azaltzeko asmoz, **ekainaren 24an, astelehena, arratsaldeko 16:30ean egingo den bilerara deitzen zaituztegu Ageri-alde eraikinean HH 3ko gelan.**

Bertan tutoreek egokitzapenaren inguruko azalpenak emango dizkizue eta zuen zalantzak eta galderak ere agitzeko aukera izango duzue bertan.

Jangelara joango diren haurren familiekin 17:30ean bilera labur bat egingo da.

Gogoratu bilera horretan ez dela zaintza-zerbitzurik izango.

Bilerara etorriko zaretenok bete gaur [galdeketa hau](#) .



HH 4ko irteeraren kobrantza

Ekainaren 24an 7,45 €-ko kobrantza egingo da Andoainera egindako irteeraren garraioagatik.



LEHEN HEZKUNTZA

Noten buletinak

LHko 4., 5. eta 6. mailetan 3. hiruhileko buletinak GAUR, ekainak 21 igoko dira Alexia aplikaziora eta azken notak ekainaren 24an jasoko dituzue.

LHko 1., 2. eta 3. mailetan azken notak GAUR, ekainaren 21, banatuko dira.



Irteeren kobrantza

❖ LH4:

Oriara egindako irteeraren kobrantza **ekainaren 24an** egingo da. Kostua **1,60 €** da eta trenari dagokio.

❖ LH6:

Zuhatzara egindako irteeraren 2. zatiaren kobrantza **ekainaren 24an** egingo da. Kostua **47,60 €** izango da.



LH6. mailako familientzat oharra

Datorren ikasturtean DBH 1. mailan egongo den ikasle bakoitzak Chromebook bat erosi behar du.

Erosketa online egin beharko duzue Xenon-ek horretarako prestatu duen webgunean. Erosketa-prozesuaren azalpen osoa [hemen](#) duzue. **Eskaera egiteko azken eguna uztailaren 5a da.**

Zailtasun ekonomiko edo teknikoak badituzue, jar zaitetzte ikastolarekin harremanetan eta lagunduko dizuegu.



DBH

DBH 3ko ikasleen irteeraren kobrantza

Tuterara egindako irteeraren 3. zatiaren kobrantza **ekainaren 24an** egingo da. Kostua **6,55 €**-koa da.



Noten buletinak

DBH-ko buletinak ekainaren 24ean igoko dira Alexia aplikaziora.

Alexia 
suite educativa